6787

EBAZPENA, 2008ko urriaren 7koa, Energia eta Meategien zuzendariarena, Ormaiztegiko udalerrian «Ormaiztegi TA» izeneko Transformazio Azpiestazioa eraberritu eta handitzeko proiektua onartu eta instalazioa baimentzen duena. Erreferentzia: 24062/AT-D-2007-147.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoan, Iberdrola Distribución Eléctrica SAk (egoitza: Bilboko Gardoki kaleko 8a) transformazio-azpiestazio hori eraberritu eta handitzeko administrazio-baimena eta burutzapen-proiektua onartzeko eske hasiarazitako espedientea ikusi da, eta abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan ezarritako arauzko izapideak bete dira —dekretu horren bidez arautu ziren ondoren zehazten diren instalazioak eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio-baimenetarako prozedurak: argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak, bai eta kontsumitzaileak konektatzeko hartuneak, zuzeneko lineak eta instalazioak ere— (2002-12-23ko EHAA), eta Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean ezarritakoarekin bat etorri da (1997-11-28ko BOE).

Ormaiztegiko Udalak Ormaiztegi 2008-03-05ean «Ormaiztegi TA» izeneko Transformazio Azpiestazioa eraberritu eta handitzeko lanak burutzeko obra-lizentzia eman zuen.

Espedientea 2008-07-23an argitaratu zen EHAAn eta 2008-06-20an GAOn, jendaurrean jarri behar baitzen; hala ere, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Aurkeztutako proiektua ikusi da. Jesús Besteiro Pacín industri ingeniariak izenpetu zuen eta Gipuzkoako Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialak 2007-11-21ean bisatu, 073120 zenbakiaz.

Energia eta Meategien zuzendariak Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 11ko 284/2005 Dekretuan (2005-10-27ko EHAA) aitortzen dizkion ahalmenen indarrez, hau

EBATZI DU:

Iberdrola Distribución Eléctrica SAUri Ormaiztegiko udalerrian Ormaiztegi TA izeneko Transformazio Azpiestazioa eraberritu eta handitzeko lanak burutzeko proiektua onartu eta instalazioa egiteko baimena ematea.

Transformazio Azpiestazioa eraberritzearen eta handitzearen ezaugarriak.

a) Transformazioa:

6787

RESOLUCIÓN de 7 de octubre de 2008, del Director de Energía y Minas, por la que se autoriza la instalación y se aprueba el Proyecto de reforma y ampliación de la Subestación Transformadora denominada «ST Ormaiztegi», en el término municipal de Ormaiztegi. Referencia: 24062/AT-D-2007-147.

Visto el expediente incoado en la Oficina Territorial de Gipuzkoa, del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, del Gobierno Vasco, a petición de la empresa Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U., con domicilio en Bilbao, calle Gardoqui 8, solicitando autorización administrativa y aprobación del Proyecto de ejecución para la ampliación y modificación de la Subestación Transformadora de referencia citada y cumplidos los trámites reglamentarios ordenados en el Decreto 282/2002, de 3 de diciembre (BOPV 23-12-2002), por el que se regulan los procedimientos de autorización administrativa para la construcción, modificación, explotación, transmisión y cierre de las instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica, así como de las acometidas, líneas directas e instalaciones de conexión de consumidores, y de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico (BOE 28-11-1997).

Resultando que con fecha 05-03-2008 el Ayuntamiento de Ormaiztegi otorgó la licencia de obra para la ejecución de la reforma y ampliación de la Subestación Transformadora denominada ST Ormaiztegi.

Resultando que sometido el expediente a la preceptiva información pública con publicación en el BOPV el 23-07-2008 y en el BOG el 20-06-2008, no se presentó alegación alguna.

Visto el Proyecto presentado, firmado por el Ingeniero Industrial D. Jesús Besteiro Pacín, visado por el Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Gipuzkoa, el 21-11-2007, con el n.º 073120.

El Director de Energía y Minas, en virtud de las atribuciones conferidas en el Decreto 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Industria, Comercio, y Turismo (BOPV de 27-10-2005).

RESUELVE:

Autorizar a Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. la instalación y aprobar el Proyecto de ejecución de Reforma y Ampliación de la Subestación Transformadora denominada «ST Ormaiztegi», en el término municipal de Ormaiztegi.

Alcance de la Reforma y Ampliación de la Subestación Transformadora.

a) Transformación:

– 60 MVA potentzia duen transformadore trifasikoa instalatzea, 132/30 kV transformazio-erlazioa, tentsio-erregulazioa kargan, egun instalatua dagoen 35 MVAko transformadorearen ordez.

b) 132 kV-ko sistema.

– Eraikinaren barrualdean, GIS-SF6 gelaxken bitartez 132 kV-ko sistema osoa trinkotzea.

c) 30 kV-ko sistema.

– Etengailua intentsitate-transformadore independentedun batez ordeztea, eta T-1 transformadorea posizioko tximistorratzak ordeztea.

e) Kontrola eta protekzioa.

– 132 kV-ko sistemarentzako protekzio- eta kontrol-sistema digital eta integratua instalatzea.

Ebazpen hau abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan ezarritakoarekin eta ondorengo baldintza orokorrekin bat eman da:

1) Onartutako proiektuarekin bat egin beharko dira obrak, eta, halakorik bada, eskatzen eta baimentzen diren aldakuntzekin bat.

2) Martxan jartzeko epea urtebetekoa izango da, ebazpen honen datatik hara zenbatutakoa.

3) Instalazioen titularrak lanak amaitzen direnean horren berri eman beharko dio lurralde-bulegoari, behin betiko egiaztatu eta martxan jartzeko akta eman dezan.

Obrak egiteko beharrezko diren udal edo probintzien eskumenpeko baimen edo lizentziak eta gainerakoenak errespetaturik ematen da ebazpen hau, eta ez du salbuesten eskatzailea haiek eskuratzeko obligaziotik. Halaber, inoren eskubideei kalterik egin gabe eta jabetza-eskubideari eutsiz ematen da.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Berrikuntza eta Energia Sailburuordetzaren aurrean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean, hala agintzen baita 4/1999 Legean. Lege horrek Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 7a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
TXABER LEZAMIZ CONDE.

– Montar un transformador trifásico de 60 MVA, relación de transformación 132/30 kV, con regulación en carga, en sustitución de un transformador de 35 MVA actualmente instalado.

b) Sistema de 132 kV.

– Compactación de todo el sistema de 132 kV mediante celdas GIS-SF6, en el interior de un edificio.

c) Sistema de 30 kV.

– Sustitución del interruptor por otro nuevo con transformadores de intensidad independientes y sustitución de los pararrayos de la posición de transformador T-1.

d) Control y protección.

Instalación de un sistema de protección y control digital e integrado para el sistema de 132 kV.

Esta resolución se concede de acuerdo con lo dispuesto en el citado Decreto 282/2002, de 3 de diciembre y con las condiciones generales siguientes:

1) Las obras deberán realizarse de acuerdo con el proyecto aprobado, con las variaciones que, en su caso, se soliciten y autoricen.

2) El plazo de puesta en marcha será de un año, contado a partir de la presente resolución.

3) El titular de las instalaciones dará cuenta de la terminación de las obras a esta Oficina Territorial, a efectos de reconocimiento definitivo y la extensión del Acta de Puesta en Marcha.

La presente resolución se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial y otros necesarios para la realización de las obras, no relevándose al peticionario de la obligación de obtener las mismas. Así mismo, se concede sin perjuicio de posibles derechos de terceros y dejando a salvo el derecho de propiedad.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Innovación y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 2008.

El Director de Energía y Minas,
TXABER LEZAMIZ CONDE.